

2015eko HAUTESKUNDE SINDIKALAK

CCOO: LAN HANDIA, ETEKIN GUTXI !!!

Dakizuen bezala, Martxoaren 11an hauteskunde sindikalak izan genituen Euskal Herriko Irakaskuntza Publiko osoan. Gurea izan zen; hau da, irakaskuntzaren langile guztiona baina, egia esan, badirudi taldearen erdiarena soilik izan zela. Honetxegatik diogu: sektore gehienetako bozketako parte hartzea doi-doi iristen baita eroldaren %40ra. Eta hau datu txarra da, kezagarria.

BOZKATZERA JOAN ez zirenen pasibotasunak erabat kezkatzen gaitu, emaitza horietatik sortzen baita negoziatio-mahaietako eta sindikatuak egon eta erabakiak hartzen diren alorretako gure ordezkari-tza-maila. Eta are gehiago: emaitza horietatik afiliatuak behar duten bezalako arreta emateko kreditu sindikala eskuratzen baitugu.

Jakina, badugu gaurko gizarteari darion desilusio orokorraren berri. Ulertzen dugu ere sindikalista batzuen erabat zintzotasunik gabeko jokabideek eragindako jardura sindikalaren aurkako argudioak; baina, badakigu ere sindikalismo kutsatua eta zintzoa bereizi behar ditugula eta azken honetan egon da eta dago CCOO Irakaskuntza. Azken lau urteotan soluzioak bilatzeari ekin diogu ardura osoz, nahiz eta jakin beti ez direla guztien gustukoak.

Iradokizunak, keak, proposmenak jaso ditugu gure afiliatuengandik eta eztabaidatu behar diren lekura bideratu ditugu. Gai andanei buruzko iritzia gureganatu nahi izan digutenei irekiak egon gara. Azken batez, biziki ahalegindu gara entzun, ezagutu eta jardura sindikala egiteko baina, lortutako emaitzek, inolaz ere, ez dute lan hori islatzen. Dударik gabe, gutaz espero denaren eta

lortutakoaren artean hutsune bat dago; baina hutsune hori bera gure afiliatuen laguntza faltan sumatzen dugu. Elkarrekin lan egin ezean, ezer gutxi egin dezakegu.

Oro har, emaitzak ez dira, kopuru ikuspegitik jota, horren txarrak izan. CCOO Irakaskuntza, Gipuzkoako Lan-legepeko hezkuntza- eta irakaskuntza-pertsonaleko sektorean martxoaren 25ean egingo diren hauteskunderik ezean, ordezkari bakarra galdu du Autonomia Erkidego osoan. Emaitza hauek Espainiako beste lurraldeetakoekin erkatuz gero, benetan aski onak izan dira. Dena den, ez gaude pozik. CCOO Irakaskuntzak ordezkatzeko duen aukera ezin daiteke denfentsarik gabe geratu, "gure afiliatuetako zatirik handi bat bozkatzera joan ez delako".




SEKTOREKAKO BALORAZIOA

• **Unibertsitateaz kanpoko funtzionari irakasleak**

Guztira, 2011n baino 8 ordezkari gehiago aukeratu da (107). Sektore honetako irabazlea STEE-EILAS izan da 7 ordezkari gehiago lortu baitu. Guk 3 galdu ditugu; lurralde bakoitzeko bat. UGT ia desagertzearekin batera, sindikatu nazionalistek Euskadiko ordezkartzaren %81 lortzen dute. CCOO Irakaskuntzak %17 duelarik.

Tristeia da sektore ugarienean -alde handiaz, gainera- gure ordezkartza jaistea eta, beraz, gure lan-baldintzei, hezkuntza-politikei eta sindikatu-akordioei buruzko eragina izateko ahalmena galtzea.

Delegados/as Euskadi PNU



• **Lan-Legepeko Hezkuntza- eta Irakaskuntza-Pertsonala**

Sektore honetan, ELA sindikatuaren hauteskunde aurreko inpugnazioari esker, atzeratutako Gizpuzkoako bozketaren zain (martxoaren 25) gaude. Inpugnazio honek laudo batera eraman gintuen, zeinak CCOO Irakaskuntzari arrazoia eman bai baina hauteskunde egutegi osoaren aldaketa ekarri zuen.

Oraingoz, 2011n lortutako ordezkari kopuru berberarekin jarraitzen dugu, nahiz eta lurraldeen artean aldaketak izan: bat gehiago Araban eta bat gutxiago Bizkaian.

Personal Laboral-DOCENTE Y EDUCATIVO

JUNTAS	DELEGADOS SINDICALES													
	Nº Delegad.		CC.OO		STEE-EILAS		UGT		LAB		ELA-STV		OTROS	
	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015
EUSKADI	47	30	6	6	10	7	0	0	21	12	10	5	0	0
Alava	13	13	3	4	3	3	0	0	5	4	2	2		
Guipuzcoa	17	0	0	0	2	0	0	0	9	0	6	0		
Vizcaya	17	17	3	2	5	4	0	0	7	8	2	3		

• Zerbitzuetako Lan-Legepeko Pertsonala

Sektore honetako irabazlea UGT da, 4 ordezkari gehiago lortu baitu. CCOO Irakaskuntzak bat galtzen du Bizkaian, 4tik 3ra pasatuz. LABek, 2011n lortutako ordezkari kopuru berberarekin, bere nagusitasuna mantentzen du (%43).

Personal Laboral-SERVICIOS

JUNTAS	DELEGADOS SINDICALES													
	Nº Delegad.		CC.OO		STEE-EILAS		UGT		LAB		ELA-STV		OTROS	
	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015
EUSKADI	35	35	4	3	0	0	3	7	15	15	13	10	0	0
Alava	9	9	1	1	0	0	1	2	4	4	3	2		
Guipuzcoa	13	13	1	1	0	0	0	2	6	6	6	4		
Vizcaya	13	13	2	1	0	0	2	3	5	5	4	4		

• Lan-Legepeko Erlijioko Irakasleak

Ordezkarri kopurua 12tan gehitu da Lehen eta Bigarren Hezkuntza hitzarmenez bateratu ondoren. CCOO Irakaskuntzak bere hiru ordezkariak mantendu ditu baina, aukeratu behar diren ordezkari kopurua gehitzeagatik, bere ordezkari-itza-portzentajea %15,79ra jaitsi da. ELAK du sektore honetako lidergoa %58arekin. USOk, aurkezten den sektore bakarra, 4 ordezkari lortu du.

Personal Laboral-DOCENTE DE RELIGIÓN

JUNTAS	DELEGADOS SINDICALES													
	Nº Delegad.		CC.OO		STEE-EILAS		UGT		LAB		ELA-STV		OTROS	
	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015
EUSKADI	7	19	3	3	0	0	1	1	0	0	3	11	0	0
Alava	1	5	0	0	0	0	0	0	0	0	1	3	0	2
Guipuzcoa	1	5	0	1	0	0	0	0	0	0	1	4	0	
Vizcaya	5	9	3	2	0	0	1	1	0	0	1	4	0	2



• **Unibertsitatea**

Unibertsitateak azpisektoretako mahai bakarrean aukeratzen ditu bere ordezkariak: funtzionari irakasle eta ikertzaileak, lan-legepeko irakasle-ikertzaileak eta, azkenik, Lan-legepeko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala.

Unibertsitateko sektorea da hauteskunde hauetan poztasunik handiena eman diguna. Guztira lau ordezkari irabazi dugu. Bat, Funtzionari Irakasle eta Ikertzaileetan, beste bat Lan-legepeko Irakasle eta Ikertzaileetan eta bi Lan-legepeko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalean, berriz, bat galdu dugu. Igoera honegatik, irakasle funtzionarioen sektorean lehen indar sindikala gara , ordezkartzaren %40 dugularik; dena den, lan-legepeko irakasleen sektorean LABek du gehiengo sindikala ordezkartzaren %44 duelarik.

Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalean, CCOOek ordezkari bat galdu du. Sektore honetan sindikatuen ordezkari banatuagoa geratu da, baina sindikatu nazionalista guztien ordezkari batuz gero, %65 lortuko lukete. Aitzitik, lan-legepeko administrazio eta zerbitzuetako pertsonalean, CCOO bi ordezkari gehiago lortu du, baina UGT da ordezkari gehien duena, osoaren %37.

Unibertsitatean sindikatu guztien ordezkari banatuagoa dago. Agian, deigarriena LABen 12 ordezkariak Lan-legepeko Irakasle eta Ikertzaileen artean eta funtzionari irakasleen artean CCOO Irakaskuntzaren 10 ordezkariak.

Azken datua: CCOO Irakaskuntza eta ELA-STV dira Euskal Irakaskuntza Publikoaren sektore guztietan ordezkari duten sindikatu bakarrak.

UNIVERSIDAD

JUNTAS	DELEGADOS SINDICALES													
	Nº Delegad.		CC.OO		STEE-EILAS		UGT		LAB		ELA-STV		OTROS	
	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015	2011	2015
EUSKADI	86	92	16	19	19	21	13	17	23	24	13	11	2	0
PDIF	25	25	9	10	5	5	2	4	4	4	3	2	2	
PDIL	25	27	2	3	6	6	2	2	11	12	4	4		
PASF	23	23	4	3	5	7	5	5	5	5	4	3		
PASL	13	17	1	3	3	3	4	6	3	3	2	2		

Delegados/as Universidad

